

Tamaina handiko kudeatzaileen artean lehena da, % **15,79ko** errentagarritasun metatuarekin

Azken 5 urteetan bezeroei errentagarritasun handiena eman die Kutxabank Gestioneak

- Epealdi horretan Taldeak kudeatzen duen ondarea % **62,8** hazi da, eta guztira **21.149** milioira arte iritsi da
- Taldearen merkatu-kuota % **6,65**ean kokatu da, azken hiru urteetan izenpetze garbietan lider izan ostean, **4.825** milioi euro bereganatuta
- Bigarren kudeatzaile handiena da jasangarritasun irizpideen arabera kudeatutako ondareari dagokionez

2021ko otsailaren 7an. Kutxabank Gestion da bere bezeroei **azken bost urteetan errentagarritasun** handiena eman dien kudeatzailea, tamaina handiko kudeatzaileen artean, metatutako errebalorizazioa % **15,79koa** izan baita, hau da, UTB % 2,98koa.

Azken bost urteetan kudeatzaileak lortu dituen errentagarritasunak aztertuz gero ikusten da onenen artean kokatuta izan dela beti, antzeko erakundeek emaniko errebalorizazioekin alderatuta. Honela, Kutxabank Gestionen errentagarritasuna % **8tik** gorakoa izan zen 2019an, % **4** inguruan kokatu zen 2020an -pandemiak merkatuen bilakaera erabat baldintzatu zuen urtean-, eta 2021ean % **5,79koa** izan da.

Beraz, Kutxabanke epealdi aipagarria itxi du 2021ean inbertsio fondoan alorrean, **merkatu osoko bilakaera onena** izan baitu izenpetze garbietan, ondarearen balorearen hazkundera eta errentagarritasunean. Gainera, Taldeak merkatuaren eta bere bezeroen konfiantza izan du.

Azken hiru urteetan **bereganatze garbien bolumen handiena** lortu duen taldea izan da Kutxabank, guztira **4.825 milioi** euro erakarri ostean. Azken ekitaldian, tamaina handiena duten hiru erakundeek bakarri gainditu dute.

Urtearen amaieran, Taldeak **21.149 milioi** eurotik gorako ondarea zeukan kudeatutako inbertsio fondoetan. Honenbestez, ondarea % **62,8** hazi da azken bost urteetan, **8.150 milioi** eurotan, hain zuzen ere.

Ondarearen hazkunde honen arrazoi nagusiak bereganatzeen bolumen handia eta lortutako errentagarritasunak izan dira.

Honekin guztiarekin, Kutxabank Gestioneak eta Fineco, Kutxabanken Banka Pribatuak osatzen duten Kutxabank Taldeak nabarmen igoarazi du 2021ean bere merkatu-kuota. % **6,65ean** kokatu da urte amaieran inbertsio fondoan alorrean (% 5,42 Kutxabank Gestio eta % 1,24 Fineco, Kutxabanken Banka Pribatua).

‘ESG’ motako fondoentzat ere urte erabakigarria izan da 2021, produktu hauek beren jasangarritasun profilararen arabera sailkatzeraren behartzen dituen araudia indarrean sartu eta gero.

Kutxabank Gestioneak merkaturatzen dituen fondo guztietan ingurugiro, gizarte eta gobernantza irizpideak aintzat hartzen ditu, eta horretan finantza-sistema osoko lehen kudeatzailea izan da. Urtearen amaieran, merkatu osoko **bigarren kudeatzaile handiena** zen jasangarritasun-irizpideekin kudeatutako ondarearen bolumenari dagokionez.